


Ura eta Zuntzarren

ZUNTZARREN

- Iturriak, latsagiak
- Ibaiak, errekek
- Uharkak, putzuak
- Askak
- Erlazionatutako toponimia
- Ur-horniketa
- Urarekin lotutako jarduerak
- Argazkiak
- Lizoainibar-Arriasgoitiko memoriaren bilketako elkarrizketak



ITURRIAK

Zuntzarrenen hainbat iturri daude, hala nola Mairuiturria, Lizarretakoa eta Batueco (Ganboiturria).

Horiez gain, iturburu txikiak ere aurki ditzakegu. Iturburu gehienak urtarokoak dira, baina bada baten bat, Biorretako erreka inguruan, urte guztiz duena emaria. Gure inguruan ohikoak dira Mairuiturri izenekoak (gaztelaniaz “Fuente del Moro”). Mairua izaki mitologikoa da, bereziki zubiak eta iturriak eraikitzen dituen.

LATSAGIAK

Bazen estali gabeko latsagi txiki bat, Mairuiturritik eta ibaitik gertu; konponketak behar izaten zituen maiz.

IBAIK, ERREKAK

Erro ibaiak Iparretik Hegora zeharkatzen du dermioa. Gainera, Biorretako erreka herri ondotik igarotzen da, ekialdetik mendebaldera, Erro ibaiarekin batu arte. Erreka hori, hala ere, Zuntzarrenen barna igarotzen denean, urteko zenbait hilabetez idor izaten da, ura iragazten baita. Erreka horren iturburua Biorretako jaurerri zaharrean dago. Urte guztian zehar izaten du ura. Badira beste erreka batzuk ere, hala nola Lizarreta, Aginaga, Errotazoko eta Aranketa.

UHARKAK eta PUTZUAK

Herrian badira zenbait etxe uharkadun. Jauregiak badu bat, antzinakoa, eta gainerakoak modernoagoak dira. Beste etxe batek putzu bat du barnean, eta bada baratze batean beste bat, nahiz eta beta galduta duen. Jauregiko eskrituretan ageri da beste putzu bat, baina oraindik ez da aurkitu non den.

ERROTAK

Herrian badira bi errotaren aurriak. Errotarik modernoenen azterna anitz dago. Errota zaharra berriaren aurrean zegoen. Zaharraren kasuan, harlandu gutxi batzuk geratzen dira. Errota 60ko hamarkadara arte egon zen martxan. Garai hartan uraldiak baliatu ziren ibaian beheiti enborrak garraiatzeko eta, hala, presa hondatu egin zen. Errotako bizilagunak Soraurengo errotara joan ziren, eta hala bukatu zen Zuntzarrengo errotaren historia, nahiz eta oraindik ere badagoen "Zuntzarrengo errotaren elkarte", hainbat jaberena baita.

Beherago, Errotazar dermioa dago; izenak izana baitu, eremu horretan beste errota bat izan bide zen, baina ez da aztarnarik geratzen.

ASKAK

Herrian bada aska bat. Urak hartzen ditu guztiz lehortzen ez den jariatze txiki batetik; alabaina, ez da aski izaten udako agorraldi gogorrean.

ZUBIA

Hirurogeita hamarreko hamarkadara arte, Mairuiturri inguruan zegoen zubi batetik sartzen zen herrira. Erro ibaiaren ibilguan harrizko bi zutabe zituen zubi bat zen. Bermeak ibai ertzetan zituen. Zoruan enborrak zituen eta enbor arteko hutsuneak lurrez betetzen ziren. Noizean behin zubia konpondu behar izaten zen, enborren bat aldatuz. 2023ra arte, ibaiko zutabeak mantentzen ziren, baina uholdeek halako batean bota egin zituzten. Erroko errepidea egitean, zubirako sarbidea baliogabetu zen eta, beraz, herrirako beste sarbide bat egin zen, jada asfaltatua.

ERLAZIONATUTAKO TOPONIMIA

Urarekin lotutako toponimia badago, hala nola Iturzar, Errotazoko eta Aska, baita aipatutako erreka eta iturrien izenak ere.

UR-HORNIKETA

1968. urtera arte, edateko ura Mairuiturritik hartzen zen, ibaitik hurbil. Herritarrak eta, bereziki, emakumeak, arduratzen ziren uraren garraioaz. 1968tik aitzina, ura Lizarretako iturritik ekarri zen, ibaiaren beste aldetik. Ura Aranketatik ekartzeko aukera ere aztertu zen, baina Diputazioak egindako prospekzioen ondoren, erabaki zen merkeagoa zela Lizarretatik ekartzea. Iturburua herriaren altuera berean dago eta, beraz, biltegia herriko etxerik garaienaren parean dago. Kare handiko ura da, eta beti esan izan da “ez duela egarria asetzen”. Badirudi Mairuiturrikoa ur “goxoagoa” dela. 2024a amaitzean, ura Mendinueta Soluziotik etorriko da. Itoizko kanaletik ateratako ura da, eta mankomunitate osoa hornitzen du, Argonga mendiko biltegietatik (Urrotz).

LIZOAINIBAR-ARRIASGOITIKO MEMORIAREN BILKETAKO ELKARRIZKETAK:

ZUNTZARREN:

NAFARROAKO ARTXIBO NAGUSIA
URROZKO NOTARIO-PROTOKOLOAK
NICOLÁS BUELTA 1794

“En el lugar de Zalba a seis días del mes de octubre de mil setecientos noventa y quatro ante mi el escribano real y testigos...”

“Propusieron de conformidad que existiendo en términos del lugar de Zunzarren un Molino Arinero lo dejó enteramente inutilizado la excesiva avenida de aguas que se experimentó el año pasado de ochenta y ocho, en el que les pertenecía a los otorgantes una vecindad o porción, y con la mira de evitar los considerables daños que padecieron dichos interesados por la falta de molino, determinaron construirlo de nueva planta como en efecto se ha verificado, y habiendo liquidado el día de hoy los otorgantes con el mencionado Jph de Leyun por sí y como comisionado de los demás interesados en el mencionado nuevo Molino...”

ARGAZKIAK



Felix Lizarragak 2022an egindako iturria

